

NOLA AURKEZTU ZUZENKETAK EDO ERREKLAMAZIOAK BERARIAZKO ZERRENDEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDARI

Jarraibideak, **zuzenketa edo erreklamazioen bat** aurkezteko onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurrean, berariazko zerrenden prozesuan.

Hasi baino lehen, **presta ezazu** zuzentzeko **aurkeztu nahi duzun dokumentazioa SOILIK**. Ez duzu dokumentazio guztia berriz aurkeztu behar, baizik eta II. eta III. eranskinetan eskatu zaizuna, besterik ez. Alegazio bat egin edo zerbait adierazi nahi baduzu, horretarako prestatutako testu-koadroan idazten ahal duzu, edo agiri batean formularioari erantsi.

Jarraian, ikusiko dituzu zeintzuk diren deialdi honetatik **baztertzeko edo merezimenduak zuzentzeko** arrazoiak, eta nola zuzendu:

• **NANa** edo agiri baliokidea:

- ✘ Ez du aurkeztu nortasun agiriaren kopia eskaneatua.
- ✘ Nortasun agiria iraungita dago.
- ✘ Nortasun agiria irakurtezina da edo osatu gabe dago.
- ✘ Jaso dugun Nan-a ezin da ireki
- ✓ **NAN osoa aurkeztu** behar duzu (bi aldeetatik), edo haren baliokidea den agiria (pasaportearen edo gidabaimena), indarrean dagoena, ongi irakurtzeko moduan.

• Hautaturiko espezialitate bakoitzean sartzeko **eskatzen den titulua**:

- ✘ Aurkeztutako titulazioak ez du balio espezialitaterako, apirilaren 8ko 37/2020 Foru Aginduaren arabera
- ✘ Ez du aurkeztu tituluaren aurrealdea
- ✘ Ez du aurkeztu tituluaren atzealdea
- ✘ Eskatzen den tituluaren egiaztagiria iraungia dago
- ✘ Ez du aurkeztu gaztelaniara itzulitako titulurik
- ✘ Ez du aurkeztu atzerrian eskuratutako tituluaren kopia eskaneatua eta, harekin batera, homologazioa eta zinpeko itzulpena, kasua bada.
- ✓ Espezialitatean parte hartzeko eskatzen den **tituluaren kopia osoa aurkeztu behar duzu, ongi irakurtzeko moduan**, euskaraz edo gaztelaniaz, edo titulu hori emateko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria. Atzerriko tituluen kasuan, homologazioa ere aurkeztu behar da, eta, kasua bada, zinpeko itzulpena ere bai.

- Prestakuntza pedagogikoko **masterra** edo baliokidea:
 - ✘ Ez du frogatu eskatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa duenik.
 - ✘ Ez du frogatu irakaskuntzako masterraren titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu dituenik.
 - ✘ Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren ziurtagiria iraungia dago
 - ✘ Ez du aurkeztu gaitasun pedagogiko eta didaktikoaren ziurtagiria, irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduko I. eranskinaren 2.4 artikuluan ezarritakoaren arabera
 - ✘ Ez dago ez zigilurik, ez sinadurarik, aurkeztutako zerbitzu-orrian, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa frogatzeko ondorioetarako.
 - ✓ Prestakuntza pedagogiko eta didaktiko hori **frogatu behar duzu**, apirilaren 8ko [37/2020 Foru Aginduaren](#) I. eranskinean ezarritakoaren arabera, deusetan galarazi gabe bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoa.

- **EGA** edo baliokidea, euskara edo euskarazko espezialitateak hautatuz gero:
 - ✘ Ez du aurkeztu EGA tituluaren edo baliokide baten kopia osoa, irakurtzeko moduan eskaneatuta
 - ✓ EGA tituluaren edo baliokide baten kopia **erantsi behar duzu**, irakurtzeko moduan.

- Eskatzen den **atzerriko hizkuntza**:
 - ✘ Ez du frogatu espezialitaterako eskatzen den atzerriko hizkuntzaren jakite maila.
 - ✓ Aukeratutako atzerriko hizkuntzaren titulazioa **aurkeztu behar duzu**.

- **Ikasketa espediente osoa**, batez besteko nota adierazita:
 - ✘ Ez du aurkeztu ikasketa espediente ofiziala
 - ✘ Ikasketa espedientea osatu gabea da
 - ✘ Ikasketa espedientea ez dago itzulita
 - ✘ Ikasketa espedientea osatu gabea da, eta batez besteko nota falta da
 - ✘ Ez du aurkeztu itzultako ikasketa espediente ofizialik
 - ✘ Ikasketa espedientean ez dago batez besteko nota
 - ✘ Ez du aurkeztu ikasketa espediente ofiziala, batez besteko nota agertzen duena
 - ✘ Ez du aurkeztu “atzerrian egindako ikasketen espedienteko batez besteko notaren baliokidetasun adierazpena”.
 - ✓ Espezialitatean aritzeko eskatzen den karreraren ikasketa espediente osoa **aurkezten ahal duzu**, batez besteko nota adierazita, euskaraz edo gaztelaniaz. Batez besteko notaren eskalak apirilaren 8ko [37/2020 Foru Aginduan](#) adierazitakoa bete behar du.

- **Perfiles** requeridos:
 - ✘ Ez du egiaztatu profilarako eskatzen de titulazioa duenik
 - ✓ Aukeratutako espezialitatean eskatzen den profilaran titulazio zehatza aurkeztu behar duzu, deialdia profil zehatz batekin egiten denean.



ZUZENDU EZIN DIREN KASUAK*

Ezin da zuzenketa egin baldin eta baztertzeko arrazoia hiru hauetako bat bada:

- ✘ **Lehenagotik egoteagatik** zerrenda indardun batean –orokorra nahiz berariazkoa izan– espezialitate eta hizkuntza horretan (zerrenda batean bazeuden, bazter geldituko zara, aurretik uko egin behar diozulako berriro izena eman ahal izateko, adibidez dokumentazio berria aurkezteko).
- ✘ Dokumentazioa epez kanpo erregistratu da
- ✘ Maila bereko edo goragoko kidego bateko funtzionarioa da edo izendatzeke dago.

*Beti egin daiteke edozein erreklamazio, zuzenketak egiteko finkaturiko epean

Dokumentazioa prest duzunean, [klik egin](#) fitxa honetan berean dagoen “**Tramitatu**” botoian:

TRAMITAZIOA

Zuzendu ^

Epea:
IREKITAKO ESPEZIALITATEAK

Jarraibideak:
ZUZENTZEKO/ERREKLAMATZEKO GIDA

Honako egiaztagiriri hauek erabil daitezke:

- Ziurtagiri digitalarekin edo NAN elektronikoarekin
- Ogasunaren NAN + PINarekin
- Cl@verekin

TRAMITATU

Identifika zaitez eskura dituzun metodoetako bat aukeratuz:



 nafarroa.eus

ES EU

Registro General Electrónico

Zerbitzuan sartzeko identifikazioa

© astelehena 2022ko urriaren 31 11:16



Internet bidezko tramiteetarako laguntza

Hori egin ondoren, zuzenketa edo erreklamazioa egiteko formularioan sartuko zara:

Irakasleak berariazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketak/erreklamazioak egiteko eskaera

Eskabidea bete

Jomuga (*)

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA/SERVICIO DE SELECCION Y PROVISION DE PERSONAL DOCENTE

Eskabidearen laburpena: (*):

Irakasleak berariazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketak/erreklamazioak egiteko eskaera

(*) Nahitaezko datuak

Jarraitu beharreko urratsak

1. - Eskabidea bete

2. Datu pertsonalak
3. Berariazko datuak
4. Sinatu eta igorri
5. Egiaztagiria

Egiazta itzazu zure datu pertsonalak, eta, **nahitaezko** daturen bat falta bada –izartxo bat (*) dute–, bete ezazu.

Ez duzu markatu behar “Erantzun telematikoaren eskaera” laukitxo.

Ez dira jakinaraziko deialdiko hurrengo urratsak. Horiek webguneko fitxan argitaratuko dira bakarrik.

Irakasleak berariazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketak/erreklamazioak egiteko eskaera

Datu pertsonalak

Esan ezazu eskabidea zure ordezkari edo beste baten ordezkari aurkezten duzun: (*) Nahitaezko datuak.

Neure izenean Honako honen ordezkari

Marka ezazu erantzun telematikoak jaso nahi baduzu. Beharrezkoa da [Helbide Elektroniko Gaitua](#) izatea eta Nafarroako Gobernuaren prozeduretarako harpidetua egotea. Oroitu pertsona eta erakunde batzuk behartuak daudela jakinarazpenak telematikoki jasotzera.

Eskabidearen aurkezlea:

NAN/IFZ/IFK/eIDAS (*):
Izena (*):
Lehen deitura (*):
Bigarren deitura:
Helbide elektronikoa:
Telefonoa (*):
Kalea (*):
Zenbakia:
Eskailera/Solairua:
Herraldea (*): ▼
Probintzia: ▼
Herria (*): ▼
Posta Kodea (*):

Jarraitu beharreko urratsak

1. Eskabidea bete

2. - Datu pertsonalak

3. Berariazko datuak

4. Sinatu eta igorri

5. Egiaztatzea



“**Hurrengoa**” sakatuta, pantailan agertuko zaizu inskripzioan zer espezialitate hautatu zenituen, eta horietako bakoitzean zuzentzeko zer duzun.

Nahitaezkoa da testuaren ondoko laukitxoak markatzea. Bertan adierazten duzu ulertzen duzula **aurkeztutako azken instantzia baino ez dela kontuan hartuko**, eta aurreko guztiak baliogabetuko direla.

Irakasleak berariazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketak/erreklamazioak egiteko eskaera

Berariazko datuak

Zerrenda espezifikoen lehen irekiera 2022ko irailean

- Badakit, zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, behin-behineko zerrendari zuzenketak/erreklamazioak egiteko epearen barrunean aurkezten den azkeneko eskaera baizik ez dela tramitatuko, eta horrek bakarrik balioko duela.

Espezialitateak

Jarraian zehazten da zer espezialitateetan sartzeko eskatu duzun. Espezialitate bakoitzean, deialdian adierazitako dokumentazioa zuzendu behar den eta zuzentzeko arrazoia zein den adierazten da. Dokumentazioa prestatu, eskaneatu eta hurrengo pantailan erantsi behar duzu. Deialdiaren bosgarren oinarrian adierazitakoaren arabera, akats formalak zuzentzen ez badituzu behin-behineko zerrendari erreklamazioak egiteko epean, eskaeran atzera egiten duzula ulertuko da. Izangaiek eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatzen ez dituzten merezimenduak ez dira inola ere kontuan hartuko.

- 0590 - MATEMATIKA / EUSKARA / ELEANIZTUNA FRANTSESA (C1)
 - Betebeharra: EGA tituluaren edo baliokidearen ziurtagiriak jada ez du baliorik
- 0590 - MUSIKA / GAZTELANIA / ELEANIZTUNA INGELESA (C1)
 - Betebeharra: EU_El archivo acreditativo de la Formación Pedagógica y Didáctica está corrupto y no puede abrirse_EU

Bazterte orokorrak

- Betebeharra: EU_El archivo acreditativo del DNI está corrupto y no puede abrirse_EU

Jarraitu beharreko urratsak

- 1 - Eskabidea bete
- 2 - Datu pertsonalak
- 3 - Berariazko datuak**
- 4 - Sinatu eta igorri
- 5 - Egiaztagiria

Kontuan izan **betekizunak** zuzendu egin behar direla prozesutik kanpo gera ez zaitezen, eta **merezimenduak** (kasu honetan, espedienteak) zuzen daitezkeela edo ez, baztertzeko arrazoia ez baitira.



Gehitu zuzendu beharreko dokumentu bakoitza dagokion laukitxoan. Testu libre bat ere idatz dezakezu horretarako prestatutako kutxan:

Euskararen ezagutza egiaztatzeko titulazioa

No se ha seleccionado ningún archivo

Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa

Dagokion prestakuntza pedagogikoa egiaztatu behar duen zerrenda hautatu duzu. Behar den titulazioa eranstean ez badu eta onartzen bada, kontratatzeko lehentasun txikieneko zerrendan sartuko da.

No se ha seleccionado ningún archivo

Profilak

No se ha seleccionado ningún archivo

Ondoko laukian zure alegazioa edo erreklamazioa idatz dezakezu:

Irakasleak berariazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketak/erreklamazioak egiteko eskaera

Aukeratu zure disko gogorraren behar dituzun dokumentuak eta erantsi banan-banan. Fitxategi bat aukeratu ondoren, sakatu **“Erantsi”** botoia zure eskaerari benetan erantsita gera dadin:

Baztertzeko orokorrak

- Betebeharra: EU_El archivo acreditativo del DNI está corrupto y no puede abrirse_EU

Nortasun agiria

No se ha seleccionado ningún archivo

Archivodemuestra.pdf

Eskatzen den titulua

No se ha seleccionado ningún archivo



Amaitutakoan, "Hurrengoa" sakatuz gero, aurkeztutako guztiaren laburpena ikusteko pantailara igaroko zara.

Pantaila horretan agertuko zaizkizu proposatutako zuzenketa guztiak, bai eta erantsitako fitxategi guztiak ere. Horretaz gain, emanen dizu datu pertsonalen gaineko tratamenduari buruzko informazioa, eta laukitxo baten bidez behartuko zaitu **adieraztera** ezen **irakurri eta onartzen** dituzula erantsitako agirien egiazkotasun baldintzak:

Sinatu eta igorri

Nork aurkeztua

NAN/IFZ/IFK (*):

Izena:

Lehen deitura:

Bigarren deitura:

Helbide elektronikoa:

Erantzun telematikoa jasotzeko eskaera: Ez da eskatu erantzun telematikorik.


Jasotze-agiriaren zenbakia

Jomuga: HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA/SERVICIO DE SELECCIÓN Y PROVISION DE PERSONAL DOCENTE

Eskabidearen laburpena: Irakasleak berariazko zerrendetan aldian-aldian sartzeko zuzenketak/erreklamazioak egiteko eskaera

Datos específicos

Deialdia: Zerrenda espezifikoaren lehen irekiera 2022ko irailean

 Adakit, zuzentzeko/erreklamatzeko eskaera bat baino gehiago aurkeztuz gero, behin-behineko zerrendari zuzenketak/erreklamazioak egiteko epearen barrenean aurkeztzen den azkeneko eskaera baizik ez dela tramitatuko, eta horrek bakarrik balioko duela.

Erantsitako agiriak

Nortasun agiria:

- Archivodemuestra.pdf

Aurkeztutako dokumentuak

Documento de identidad - Archivodemuestra.pdf

Datu babesari buruzko informazioa

Jarraitu beharreko urratsak

1. Eskabidea bete
2. Datu pertsonalak
3. Berariazko datuak
- 4. - Sinatu eta igorri**
5. Egiaztagiria

“Sinatu eta bidali”-n sakatu ondoren, sistemak frogagiri bat emanen digu. **Frogagiri** hori PDF batean gorde edo inprima dezakegu (prozesua egin dela eta behar bezala bukatu dela egiaztatzen du):

Aurkezpenaren jasotze-agiria:

Nork aurkeztua

NAN/IFZ/IFK (*):

Izena:

Lehen deitura:

Bigarren deitura:

Helbide elektronikoa:

Honako hau ordezkatzuz

NAN/IFZ/IFK (*):

Izen-deiturak/Sozietatearen izena (*):

Lehen deitura:

Bigarren deitura:

Helbide elektronikoa:

Eskabidearen datuak

Jasotze-agiriaren zenbakia:

Jomuga:

Aurkezpen data:

Sarrera data:

Eskabidearen laburpena:

Eskabidearen oharra:

Datos específicos

Documentos Aportados

Jarraitu beharreko urratsak

1. Eskabidea bete
2. Datu pertsonalak
3. Berariazko datuak
4. Sinatu eta igorri
5. Egiaztatzea

Ayuda

Imprimir

Hasiera

Sistemak ez badizu frogagiri hori ematen, berrikusi urrats guztiak. Litekeena da zerbait behar bezala bukatu ez izana.

Horrekin, zuzentzeko prozesua bukatutzat eman dezakezu.

Une horretatik aurrera **aztertu**ko da zuzenketak edo erreklamazioak egiteko aurkeztu duzun dokumentazioa, eta behar dena egingen da. Ondoren, **argitara emanen da** onartuen behin betiko zerrenda.

Arazo informatikorik baldin baduzu, idatzi soportec@navarra.es helbidera edo deitu 948013576 telefonora, 08:30etik 17:30era, astelehenetik ostegunera. Ostiraletan, ordutegia da 08:30etik 15:00etara.